

# Hezkuntza sailburuari gutun irekia I



**TERE MALDONADO**  
FILOSOFIA IRAKASLEA

**P**edrosa andere agurgarria: Zorionak, Hezkuntza sailburu izendatu zaituztelako. Ez da ardur berria zure gainean izango duzuna aurrerantzean. Ederto ezagutu behar duzu Hezkuntza Saila, lau urte sailburuorde eman ostean. Ikasturtea bukatuta, kontu batzuk gogoratu nahi nizkizuke (udan meditatzeke, nahiko bazenu). Badakit oso ikuspegi bestelakoak ditugula heziketaz, eta aginte ahalmenari dagokionez zer esanik ez, irakasle hutsa naiz ni eta zu Jaurlearitzako sailburua, ez gutxiago. Baina arrazoiaren erabilera publikoa sus-tatu behar dugula esatean ziur nago bat gatzela biok. Lotsa apur bat ematen dit gauza batzuk esan behar izateak, baina tira, esateko beharra dut.

Ondo dakizunez, irakasle lanaren kalitatea behera egiten ari da azken urteotan, gure lan-karga etengabe handitzen ari delako. Lan-kargaren handitze horrek jatorri asko ditu, eta xehe-tasun txiki askotan islatzen da. Hain zuzen, txikiak izateagatik hasieran oharkabean pasatzen dira, baina metatzen doaz, harrea-aleak balira bezala, eta azkenean mendiak eratzen dituzte. Ikerketa sakon bat egin beharko litzateke lanaren hazkunde hori kuantifikatzeko, eta zehazteko egin behar dugunari gehitzen zaizkion eskakizun berri horietatik zeintzuk ez duten gure lana hobetzen, baizik eta okertzen.

Oinarri material oso eskasa duen digitalizazio azeleratua (ekipo informatikoei mantentze-lan egokiak ez zaizkie-



PAULA ESTÉVEZ

lako egiten, adibidez) kezka eta estres iturri etengabea da, askotan denbora asko galtzea eta atazak betiketzea eragiten baitu.

Irakasleok izapide administratiboe-tarako eta gure lanaren alderdi burokratikorako (notak jartzea, hutsegiteak kontrolatzea, familiekin komunikatzea, eguneroko gorabeherak erregistratzea) erabiltzen ditugun atari eta programa informatikoak eskasak dira oso, eta ez daude egokitu ikastetxeetako beharretara. Horrek ekartzen du minutu gutxitan burutu beharko liratekeen atazak mugarik gabe atzeratzea. Adibide pare bat:

Irakasleak ikasle baten amaren komunikazioa jaso dezake. Ama horrek bere seme-ari edo alabari buruz hitz egin dezake ponte-izenarekin, lehen abizenik gabe eta zein taldetan dagoen zehaztu gabe. Kontuan izanik irakasgaiaren arabera irakasle batek 150-200 ikas-

le izan ditzakeela, gauzak zaildu egiten dira. Irtenbidea ez da gurasoei irakastea guregana jotzen ikaslea identifikatzeko behar ditugun datuak emanez. Akatsa programa informatikoan bertan dago, guraso batek gurekin komunikatzeko derrigorrezko eremu batzuk eduki beharko litzuke (bete ezean ezin izango luke komunikazioa bidali). Beste bat: ikasle bat bertaratu ez dela zehazteko, hoguei klik inguru egin behar ditugu pantailara iristeko; bidean jazo ohi diren gorabeherak kontuan hartuta, falta bat erregistratzea bezain erraza den egintza batek 10 minutuko atzerapena ekarri ahal du. Bi adibide baizik ez dira beste askoren artean. Bereziki kezka-garria da, Eusko Jaurlaritzak sektoreko multinazional ezagun batekin *Workspace for Education* erabiltzeko akordioa sinatu zuela gogoratzen badugu, dirutza publikoa sartuta.

Azken legearen arabeko programazioak eta ebaluazioak (kritikatu litezkeen beste aldeak alboratuta) aurrekaririk gabeko lan burokratikoko orduak gehitzea eragiten ari dira. Askotan, esan bezala, lan antzua, irakaskuntzaren kalitatea hobetzen ez duena.

Irakaskuntza publikoko irakasle askok eskertuko genizuke gai horiek zure taldearekin aztertu eta konponbideak bilatzea. Baina, zoritxarrez, gure arazo bakarrak ez direnez, hurrengo gutun batean atseginez helaraziko dizkizut beste horrenbeste.

Oporraldia baduzu, asko disfrutatu. Adeitasunez, T. M. ●